

**Hona hemen abestiaren bertsoak, luze samarrak dira baina dena idatzita geratzen bada, ez da hitzik galduko:**

Nere kristauak badakizuen  
noiz degun Santa Ageda  
lege zarreko usediuan  
kantuen gatoz atera.

Gobernadore Palermokuak  
aginpidia ba zuan  
Santa Ageda hain zan ederra  
bere andratzat nahi zuan.

Gizon handia izanagaitik  
hori logratu ez zuan  
lendabiziko nobledadeak  
horregaitik izan zituan.

Soldadu batek itaundu eutsen  
aber nahi zuan aldatu  
Santa Agedak erantzun eban  
Jesus nahi dot nik maitatu.

Bere bularrak ebagiteko  
kutxiloagaz ondotik  
negargarrizko tristurarekin  
oso bularrak kendurik.

Sinizgabeko salbaje horrek  
ezauerarik ez dute  
gobernadore traidoreorrek  
sententzia du ematen.

Pena frankua paseuagaitik  
Ageda firme egoan  
agoniako ordu santuan  
Jesusi geiez eguan.

Ta orain gloria gozetan dago  
aingeruakin zeruan  
Ta orain gloria gozetan dago  
aingeruakin zeruan.

Neure lagunok kantzau dire eta  
hasi diradez kejatzen  
hasiko banaz hasi nadilla  
etxekotxuok notatzen.

Lehenengo hasite gura genduke  
etxeko jauna notadu  
errekaldian lizarra  
zeru altuan izarra  
etxe honetako usaba jaunak  
urre gorritz dau bizarra  
urre gorritzko bizarra eta  
diamantezko espalda  
berori lango gizon prestau bet  
herri honetan ez al da  
usaba jaune parkatu  
ez bazera ondo notadu.

Orain hasite gura genduke  
etxeko andria notadu  
erreka onduan harrie  
haren ganien txorie  
etxe honetako etxeko andreak  
sedazko gona gorrie  
onaik aurrera geituko jako  
doña Birgiña Marie  
lukainkatxo bi guri emotea  
ez da milagro haundie  
etxeko andria parkatu  
ez bazera ondo notadu.

Orain hasite gura genduke  
zaldun gaztia notadu  
idi txuriek ekarten daude  
karabaireko otea  
etxe honetako zaldun gazteak  
prestaurik bere dotea  
prestaurik bere dotea eta  
topaurik dama gaztea  
Ageda Deunak emon daioela  
osasune ta bakea  
zaldun gaztia parkatu  
ez bazera ondo notadu.

Bedeinkatua izan dedilla  
etxe honetako jendea  
pobre ta umil dabilzantentzat  
badauko borondatea.

Santa martiri maitea  
dago errukiz betea  
berak alkantzatu dagigula  
osasune ta bakea.

Orain hasite gura genduke  
dama gaztia notadu  
neskatxu gazte konponi diat  
zeure kolore gorria  
zeure matraiak iduritzen dau  
klabeliñaren orria  
klabeliñaren orria eta  
larrosa maiatzekua  
ta orain begira hementxe nago  
damatxu biotzekua  
damatxu gazte parkatu  
ez bazera ondo notadu.

Adios orain esaten dogu  
Santa honekin batian  
urte ontxu bat pasa daizuen  
osasunez ta bakian.

Pobre umillen artian  
beti erruki gaitian  
orain hemendik bagoaz eta  
agur hurrengorartian.